

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jardueren oinarria ikasleak izango dira, hau da, beraiek izango dira apunteen bidez gure proiektua aurrera eramango dutenak, ikasleek produzituko dute gure lehengaia eta beraien arabera izango da apunteen produkzioa, kalitatea eta lortuko dugun diru kantitatea. Guk daukagun lan bakarra webgunea eskolei eskaintzea eta webgunearen mantenua izango da: eguneratuta edukitzea, arazoren baten aurrean soluzioa jartzea, webguneak txukun eta dotore jartzea... Hori dena egiteko asko ahalegindu beharko gara gure bezeroak gustura egoteko.

